

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak Nafarroako Kontseilura igorri du Euskararen erabileraren Foru Dekreturako proiektua

*Dekretuarekin herritarrei bermatu nahi zaie administrazio publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea*

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 24

Nafarroako Gobernuak gaurko saioan erabaki du Nafarroako administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta mendeko zuzenbide publikoko entitateetan euskara erabiltzeko foru dekreturako proposamena aintzat hartzea. Halaber, Nafarroako Kontseilura igortzea erabaki du, hark irizpena eman dezan.



Nafarroako Jauregia.

Arau berriarekin herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko duten eskubidea arautu eta bermatu nahi da, zonifikazioak ezarritako terminoetan eta toki entitateen eskumenak errespetatuz.

Ollo kontseilariak gobernu saioaren ondoko prentsaurrekoan azaldu duenez, dekretuaren bidez lortu nahi da “aurrera egitea, Nafarroan diren 80.000tik gora euskaldunei administrazioetatik eman behar zaien erantzunari dagokionez, gaur egunean, 148 langile publikok baino ez baitituzte atenditzen. Kopuru hori ondoko urteetan emendatuko da, izan ere, azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, 16 eta 24 urte bitarteko Nafarroako biztanleen %25 euskalduna da”.

### Berritasun nagusiak

Araudi berria parte-hartze prozesu garrantzitsu baten baitan prestatu da, herritarren, Funtzio Publikoko sindikatuen, Nafarroako Gobernu departamentuen eta toki entitateen iritzia aintzat hartuta. Gainera, proiektuak Euskararen Nafar Kontseiluaren aldeko txostena du.

Kontseilariaren hitzetan, proiektua “posibilista da, indarrean den araudiaren baitan” eta indargunea herritarrengan eta herritarren hizkuntza eskubideen errespetuan ezartzen du,aldi berean bermatzen dituelarik herritarren eskubideak eta langile publikoek eskuratutako eskubideak. Era berean, dekretua prestatu da toki entitateen eskumenak errespetatuz.

Bestetik, arauak hizkuntza eskubideak bermatzeko irizpideak

ezartzen ditu, administrazioaren barne baliabideak eraginkortasunez kudeatuz; izan ere, B2 edo C1 mailaren jabe diren milatik gora funtzionario ditu administrazioak.

Dekretuaren arabera, departamentuek lanpostu eta zirkuitu elebidunen gaineko beren plangintza egin beharko dute. Plangintza horiek, Nafarroako Gobernuak onetsi aurretik, mahai sindikalekin negoziatuko dira.